BIZITEGI ERAIKINA — JAUREGI JENERALA 4

D MAILA



Egile eta data ezezagunak (segur aski Jose de Goicoa; 1894)
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena.
Mehelin arteko eraikina, behe oina, hiru goi oin eta txapitulak dituen teilatupeko oin bat dituena. Harlanduzko fatxada. 1934ko jasodura proiektu bat dago, onartu zena baina gauzatu ez zena. Konposizioko eta apaindura tratamenduko batasun argia dago kale horretako 4tik 16ra bitartean, hirugarren oineko ateburuen apaindurako desberdintasun txikiak salbu, eta 15 cm-ko hurrenez hurreneko mailakatzeak ditu (14ren eta 16ren jatorrizko proiektua Jose de Goicoarena eta 1894koa da).

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.